

aisiola



aisiola



AISIOLA HEZITZAILE ESKOLA

- Euskal Herriko Ikastolen elkarteko Aisialdi eskola.
- Besteak beste Hezitzaile eta Zuzendarien formaziorako eskola.
- 2022-23 ikasturtean 480 ikasle, 31 talde. Hegoaldeko 4 herrialdeetan.

BALIOAK

- **Euskalduna:** euskara eta euskal kultura ardatz dituen.
- **Ingurumenarekin konprometitua.**
- **Hurbilekoa:** ikasle, haur, familia, ikastola eta eragileekin hurbileko harremana duena.
- **Profesionala:** pertsona kualifikatuekin kudeatutako esku-hartze serioa parte hartzen duten agente guztiekin.
- **Bizikidetzaren erdigunean jartzen duena.**

HEZITZAILEAREN IRTEERA PROFILA

- **Garapen pertsonalean** hazten eta hezten lagunduko dio ikastaroak hezitzaileari
- Haurren aisialdi **parte hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra** bultzatzeko tresnak eskuratuko ditu.
- Haurra **subjektu aktibo** bezala ikusiko du (protagonista), hezitzailea **bidelagun** izanik.
- Lehiakortasuna baztertu eta **kooperazioa** moduko balioak sustatzen dira.

IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

Ikastaroak guztira 310 ordu ditu, bi zatitan banatuta: Zati teorikoa (150 ordu) eta praktikoa (160 ordu)

Zati teorikoa:

- %75eko asistentzia bermatu behar da modulu bakoitzean
- Modulu bakoitzaren bukaeran ebaluazio ariketa bat egongo da
- Zati teorikoak 3 modulu izango ditu:
 - Haur eta gazteen aisialdirako hezkuntza-jarduerak (60 ordu)
 - Talde eta hezkuntza-prozesuak haur eta gazteen aisialdian (30 ordu)
 - Animazioko teknikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan (60 ordu).

IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

Zati praktikoa:

- Haur eta gazteen aisialdiko egitasmoetan.
- Arlo teorikoa bukatu eta 3 hilabeteko epean hasi behar dira praktikak
- Aisiolak praktikak eskainiko dizkio ikasleari eta uko egiten badio Aisiolaren proposamenari ikasleak, bere kabuz kudeatzeko ardura hartzen du.
- Bukaeran, memoria bat egin behar du ikasleak

IKASTAROAREN ANTOLAKETA ETA EGITURA

Ikastaroa egiteko bi aukera (*egutegia ezingo da aldatu*):

- ***Ikasturte bakarrean***

- 17 urtetik gorakoentzat (batxi 2koentzat)
- 2023ko urritik 2024ko maiatzera (zati teorikoa)
- Saioak ostiralero (15:30-20:30)

- ***Bi ikasturtetan***

- 16 urtetik gorakoentzat (batxi 1ekoentzat)
- 2024ko urtarriletik 2025eko maiatzera (zati teorikoa)
- Saioak bi ostiraletik behin (15:30-20:30)

Ikasturtean zehar asteburu pasa bat egingo da Allon (bertara joateko modua aurkitzea ikaslearen ardura izango da)

PREZIOA

150 orduko ikastaro teorikoa eta 160 orduko praktikaldiaren kudeaketa:

- 430 €/ikasleko (Ikastoletako ikasleak)
- 450 €/ikasleko (gainerakoak)

IZEN EMATEA

- ***Ikasturte bakarreko ikastaroa***
Irailak 4tik urriak 2ra
- ***Bi ikasturtetako ikastaroa***
Azaroak 1etik abenduak 1era

Izen ematea zirimola.eus web orrian

aisiola



Eskerrik asko!